

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 22

*1521/2019 EBAZPENA, abenduaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, David Cantero Gonzalez jauna Kudeaketa Sanitarioko atalburu izendatzen da, zerbitzu erakunde honetan, lau urteko aldirako, luzatzeko aukerarekin.*

#### EGITATEAK

1.– Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 27ko 383/2019 Ebazpenaren bidez, dei egin da, Barrualde-Galdakao ESlan, Kudeaketa Sanitarioko atalburu lanpostua lehiaketa bidez betetzeko. Ebazpen hori argitaratu zen, BOEn (2019ko irailaren 20koa), EHAAn (2019ko irailaren 17koa), eta Osakidetzaren web orrian.

2.– Deialdi-ebazpen hori dagokien aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratu zen hurrengo egutetik hasita, 15 egun balioduneko epearen barruan aurkeztu zuen eskaera interesdunak. 2019ko urriaren 11n amaitu zen epea.

3.– Balorazio Batzordeko kideen izendapena Osakidetzako web-orrian argitaratu zen, 2019ko azaroaren 5ean.

4.– Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta eskatzaileak bete beharreko baldintzak aztertu ondoren, Osakidetzaren web orrian argitaratu zen (2019ko urriaren 28koa) onartutako eta bazter-tutako hautagaien behin-behineko zerrenda.

5.– Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, ez zela bat bera ere aurkeztu, behin betiko zerrendak onartu ziren (2019ko azaroaren 4koa).

6.– Behin betiko zerrendak, kudeaketa proiektuaren memoria jendaurrean jartzeari buruzko iragarpenarekin batera, argitaratu ziren Osakidetzako web-orrian, 2019ko abenduaren 5ean eta 13an. Era berean, deialdi hori jakinarazi zituzten hautagaiari.

7.– Kudeaketa proiektuaren memoria jendaurrean jarrita izan, eta Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskabidea baloratuta (2019ko abenduaren 4koa), baita dagokion izendapen-proposamena eginda ere (2019ko abenduaren 4koa); eta David Cantero Gonzalez jaunak dauzkan ezagutza akademikoak eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da berori izendatzea Kudeaketa Sanitarioko atalburu lanposturako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESlan.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Barrualde-Galdakao ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 27ko 380/2019 Ebazpenaren 7. oinarriak ezartzen duela Gerentzia Zuzendaritzak Ebazpena emango duela, egindako proposamena ikusita, eskainitako lanpostua betetzeko edo deialdia hutsik uzteko.

2.– Ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioko 8/97 Legearen 28. artikulua 3. arau komuna; uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, lanpostu funtzionalak arautzen dituena, eta

azaroaren 11ko 255/97 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen, bereziki zerbitzu-erakundeetako zuzendari gerenteen eskumenei buruzko 15. atalak jasotakoak, eta aplikatu beharreko araei buruzkoak.

Aurreko guztia aintzat harturik,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– David Cantero Gonzalez jauna izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakao ESIko Kudeaketa Sanitarioko atalburu, aldi baterako.

Bigarrena.– Aldi baterako izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin; Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru hiru hiru arau komunean xedatutakoarekin bat etorritik, eta data honetatik aurrera ondorioak izango ditu: 2020ko urtarrilaren 1a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitutakoan lanpostua utziko du, ezpada luzapena onartzen dela, betiere Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru hiru hiru arau komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Era berean, izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere, gerta liteke kar gutik kentzea, aurretiaz kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru hiru hiru arau komunaren 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-arrazoiak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Seigarrena.– Ebazpen hau argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzaaren web-orrian.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorajotzeko errekurtsioa aurkezdakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, jakinarazpena jasotzen den hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Galdakao, 2019ko abenduaren 4a.

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentea,  
JON GUAJARDO REMACHA.